

Arrasate

UPRESUS

1996ko
Maiatzak 17
320. zenb.

IKUSPEGIA

Karmele
Perez

ELKARRIZKETA

Mugarik
Gabeko
Injineritza

KULTURA

Josemari Velez
de Mendizabalen
liburu berria

KIROLAK

Gimnasia
erritmikako
erakusketa

Motozaleak

Biderako
jaioak





Banatzaileak:



ALTZARIAK Berango

SUKALDERAKO EKIPAMENDU OSOA

- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

5 URTEKO GARANTIAZ

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
ARRASATE Tfnoa: 79 01 92



Zeramika erakusketa eta salmenta

Uribarri Etorbidea, 22-B
Tfnoa: 79 81 80 • Faxe: 79 81 80
ARRASATE

Oihaneko legea

Urtero bezala, aurten ere eman digute bai zeresanik zorioneko aurrekontuek. Baina aurten, urteroko kexu eta eztabaidei beste zerbait gehitu zaie: hirukoaren boikot nabarmena, alegia. Izan ere ez da kanpaikada makala izan azken momentuan hirukoak Gobernu Batzordeari botatako hordagoa.


Herritarron gehiengoak ez dugu behar bada proiektuez ezta zenbakiez asko ulertuko, baina zenbait gauzak harritu behintzat egin gaitzake. Lehenik eta behin, zenbait proposamen atzera bota eta horie pezeta bat eskeintzearen kontua dugu: hori itxuragabekeria. Era berean, komunikabideei, kulturari eta euskara berari egindako murrizketaren auzia: zer lortu nahi da horrekin? Edo Uribarriko jubilatuen gatazkarekin?

Zergatik behar dute hainbeste azterketa eta exigitzen zaie hainbes-

te lan batzuei norberari eskatzen ez zaizkionean? Zer dela eta horrenbesteko alde batzuek eta besteek aurkeztu dutenaren artean? Udaletxean daudenek ez al dute herritarron interesak defendatu eta herriari komeni zaizkion proiektuak aurrera eraman behar? Noiz arte izan behar dira interes politiko eta partidistak herria gidatuko dutenak? Noiz arte izan behar dira interes politiko eta partidistak herritarron bizimodua lardazkatu eta nahastuko dutenak?

Beti pentsatu izan dut gizakiaren berezko arauetako bat zera zela, norbera bizi eta lagun urkoari bizitzen uztea, alegia. Halere, dirudienez beste lege batek gainditu du oinarri hau: norberak ez egin baina besteei ere egiten ez uzteak. Badirudi hauxe dela gaur egun oihaneko legea. Jakina, gure zoritxarrerako.

KARMELE PEREZ



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafamungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoï, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Memesa

79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

.....

Arrasateko Ertzantzari

Joan zen larunbatean eta Ertzaintza manifestarien kontra aritu ondoren, hauek antidisturbioetarako materiala gordetzen hasi zirenean, 11 urteko mutiko talde jakinguratsu bat begira geratu zen (Beraien artean nire semea). Armez betetako ertzain batek galdetu zien, "Zirkoa ikusi duzue?". Mutikoak harrিতuta elkar begiratu zuten. Orduan beste ertzain batek "hobe ikasten ez baduzue" esan zuten.

Nire semeak hau kontatu eta gero guztiz kezkatuta, horrela aitortu zidan: "Ama, nik bai, ikusi dut. Baina ikusi dudana erromatar zirko bat zen, basapizti gosetuek babesgabeko jendea, baina

beraien ideialekin leiala, zakarki erasotu zuten".

Erromatar zirko leoi gosetuaren jarrera presa aurrean ulertu zuen, baina ulertu ezin zuena burmuindun deituriko gizakiak horrelako gauzak baimentzen zituela zen. Eta larunbatean ulertu zuena burmuin gaixotuak (irakur PNV, EA...) beraien asea betetzearren gizaki-basati gosetu batzuek baliatzen direla herri bat zapaltzeko, askatasuna eta beraien eskubideen alde borrokatzen duen herri bat erasotzeko.

Bukatu zuen, "Ama, noizbait nire burmuina loitzen bada goseagatik, ez utzi botereak erabil nazala herri baten arrazoien kontra, eta gogorarazi gaur ikusitakoa" esaten.

RAKEL PEREZ DE ARENAZA

Gutunen araudi berria

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 leuroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jarriko gara.
- Anonimo, gaitzenez edo inizialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kale-ratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Maiatzak 31 eta ekainak 1
Donostiako Miramar jauregian

euskal kom

PRENTSA JARDUNALDIAK

Informazioa eta izen-ematea:


Maiatzaren 20tik 28ra
300 222 telefonoan
Hegoaldetik 943 aurrezenbakia
Iparraldetik 19-34-43
aurrezenbakai

Pena eman dizu Mondra kategoriaz jeisteak?



Lurdes Igartua
(38 urte)
Erizaina

Bai, piska bat bai. Ondo jolastu ez duelako jeitsi dela uste du. Agian denboraldi txarra egin dute edo beste taldeek hobeto jokatu dute... Edo beharbada zoritxarra izan da.




Jabier Rodriguez
(27 urte)
Langilea eta ikaslea

Ez, ez naiz futbol zalea. Besteak bera baino hobeak direlako jeitsiko zen. Ez dakit, ez nago gai horretan sartuta. Dena dela, futbola eta atzetik ekartzen duena ez dira gauza onak herri batentzat.



Luzia Bidaburu
(73 urte)
Jubilatua

Bai pena eman dit. Futbolaz ez dut ezer ulertzen eta ez dakit zergatik gertatu den.




Juan Mari Egaña
(38 urte)
Mekanikoa

Ez, hemen inguruan Aloña hirugarren mailan egonda nahikoa da. Iazko lehendakari eta direktibaren asuntxo dela uste dut. Mondrak oso denboraldi txarra egin du.



Amaia Baltzategi
(15 urte)
Ikaslea

Ez, futbolaz ez dut ezer ulertzen eta ez zait inporta. Akaso entrenatzailearen erruz, baina ez dakit zergatik jeitsi den. Ez dut kirola jarraitzen, bat bera ere ez.



Joxe Azkarraga
(59 urte)
Langilea

Bai, sentitzen dut. Akaso zuzendaritzak ez duelako gai hori ondo eraman edo egin. Ez dut taldea jarraitu eta ez dakit zer moduzko denboraldia egin duen.



Marian Axpe
(36 urte)
Erizaina

Bai, pena ematen dit. Ez dakit zergatik jeitsi den, agian ez zuen ondo jokatu. Aurtengo denboraldia ez dut jarraitu, saltsa dagoenean Realak ikustera joaten naiz.



Xabier Jarauta
(27 urte)
Langabezian

Ez. Normalean ez dut Mondra jarraitzen. Gaizki jokatu duelako jeitsi dela suposatzen dut. Aurtengo gaizki ibili dela ikusi dut, ez dakit noren hutsegitea izan den, akaso denona.

Jesusi Etxebarria MUSIKA ESKOLA

1996-97 ikasturteko matrikula epea zabalik
maiatzaren 13tik ekainaren 18ra

Solfeo, abesbatza, armonia, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta kitarra (Azken hau modalitate guztietan, klasikoa, rock-a, blus-a, modemoa, etabar. solfeoz edo zifraz)

Iturriotz, 32 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 17 67



BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguualatorria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udaltaldea79 09 00
 Udaltaldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

17 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Nunca hables con extraños"
 7etan eta 10etan.

• **MUSAKOLAKO JAIK**
 Goizeko 10etan kanpai errepika eta kohete jaurtiketa. 10.15etan hurrendako kirol-jokoak auzoko eskoletan. 4etan jubilatuentzat mus, briska eta tute txapelketak. 4.30etan jubilatuekako bolo txapelketa. 5etan ping-pong txapelketa. 7etan ikurriña jasotzea. 7.30etan Kataide jatetxean auzoko jubilatuentzat afari-omenaldia. Gaueko 11etatik goizaldera arte, dantzaldia "Drindots" taldearekin.

18 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Pena de muerte" 5etan 7.30etan eta 10etan.

• **MUSAKOLAKO JAIK**
 Goizeko 10.30etan pala partiduak. 12.30etan herri txikiteoa. 1.30etan urrezko astakiloen entrega. Arratsaldeko 2etan "Musakola Askatu" lemapean manifestazioa. 2.30etan Herri bazkaria Kataide jatetxean. 3.30etan V. Xake irekia. 5etan kalejira. 5.30etan sokatira, San Isidro sari nagusia. Gaueko 11etan "Joselu anaiekin" dantzaldia. 11.30etan San Isidro bolo txapelketa.

• **MONDRAGON BRASS TALDEA**
 "Mondragon Brass" metal taldearen aurkezpen kontzertuaren arratsaldeko 7.30etan Arrasate Musikaleko areto nagusian.

• **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**
 AEDko antzerki tailerrak "Nueva Zaragoza herriarrak" antzezlanaren aurkeztuko du Amaia antzokian gaueko 10.30etan.

• **MARIANISTEN MENDEURRENA ESKORIATZAN**
 Arratsaldeko 4.30etan Eskoriatzako hilerrian Marianisten hilobiaren bedeinkapena. 5.15etan Euskaristiaren ospakizuna. 6.15etan orotzarre ospakizuna

• **EUSKARAREN EGUNA ARETXABALETAN**
 Loramendi elkarteak antolatuta. Eguerdiko 12etan Akordeoi orkestraren emanaldia. 2etan herri bazkaria. 4.30etan aldi bereko xake partidak. 6.30etan Larrain dantza. 7.30etan II bolo txapelketa. Gaueko 10etan Maixa eta Ixiarrekin dantzaldia eta 11etan rock jaialdia Gaztetxean.

19 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Pena de muerte" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Kanpatzar gaina, Zornotza, Gernika, Durango, Arrasate. 90 kilometro. Irteera goizeko 9.15etan Monterrondik.

• **MUSAKOLAKO JAIK**
 Goizeko 10etan erraldoiak eta buruhandiak. 12etan Gimnasia erritmikako erakustaldia. 12.30etan txikiteoa auzoko txistularien eskutik. 6etan herri kirolak. 7.30etan "Txusma", "Iskanbila", "Ekon" eta "Ahiotz" taldeekin kontzertua. 10.30etan kalejira eta 12etan azken traka, suzko erruberrak eta agurra.

• **ARRASATE-OÑATI LASTERKETA**
 Goizeko 11etan hasiko da Portaloian 11 kilometro eta 300 metroko lasterketa. Laixan elkarteak antolatuta.

• **MARIANISTEN MENDEURRENA ALMEMEN**
 10etan kirol ekintzak. 12etan Juan Ramon Aranaren omenekitaldia. 12.15etan ikasle ohien partiduak.

• **OMENALDIA ETA MANIFESTAZIOA**
 Pako Robles eta Jon Agirre pre-soen aldeko omenaldia Zigarrolako San Antolin plazan arratsaldeko 6.30etan. Manifestazioa ere egingo da. Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

• **ANTZERKIA GAZTETXEAN**
 Arratsaldeko 6etan hasita "Teatrocaos" eta "Bocanada de oxígeno" taldeen antzerki emanaldia Arrasateko Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 17
 Eguez eta gauez: Irizar. Erguin.

Larunbata 18
 Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina.

Igandea 19
 Eguez eta gauez: Ruiz. Maala.

Astelehena 20
 Eguez eta gauez: Morales. San Andres.

Asteartea 21
 Eguez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Asteazkena 22
 Eguez eta gauez: Iturriotz. Español.

Osteguna 23
 Eguez eta gauez: Corcuera. Musakola.

MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Besaidek mendi eski irteera antolatu du maitzaren 24-25 eta 26rako. Benasque - Anetora joango dira. Izenematea maitzaren 20 eta 21ean arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.

20 ASTELEHENA

• ZINEA

"Pena de muerte" 7etan eta 9.30etan.

KIROLA EUSKARAZ

Patinaia eta Fitness ikastaroak Arrasaten. Hobekuntzako patinaje ikastaroa maiatzaren 18, 25 eta ekainaren 1ean Musakolako kiroldegian goizeko 9etatik 11etara. Prezioa: 1.500 pezeta Deba Bailarakoentzat eta 2.000 pezeta gainontzekoentzat. Fitness ikastaroa ekainaren 8an goizeko 9etatik arratsaldeko 6etara Musakolako kiroldegian. Irakaslea: Tomas Zubimendi. Ikasgaiak: oinarrizko arauak, makinaren erabilera eta programa desberdinak. Prezioa: 2.000 pezeta Deba bailarako bazkideentzat eta 3.000 pezeta gainontzekoentzat.

EZINDUEI ZUZENDURI-KO LAGUNTZA

Ezinduei zuzenduriko banakako laguntzen eskaera egiteko epea zabalik dago datorren ekainaren 9a arte. Informazio gehiago lortzeko Udaletxeko Gizarte Zerbitzu Sailean edo 79 90 00 telefonora deituta.

21 ASTEARTEA

• ZINEA

"Pena de muerte" 7etan eta 9.30etan.

• SENIDEEN ENKARTELADA

Sebero Altube plazan arratsaldeko 7eta.

• "NIRE HAURTZAROKO ARRASATE" LIBURUAREN AURKEZPENA

Josemari Velez de Mendizabalen liburuaren aurkezpena. Harresi aretoan, arratsaldeko 7etan.

22 ASTEAZKENA

• HITZALDIA BRIGADA INTERNAZIONALISTAK ANTOLATUTA

Gaia: Guatemala gaur. Hizlaria: Juan Francisquez Mateu, FDNGko partaidea. Arratsaldeko 7etan Monterroren.

23 OSTEGUNA

• ZINEA

"Rosalie va de compras" filmea Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

JUBILATUENTZAT EGONALDIAK

65 urtetik gorako jubilatuentzat Foru aldundiak hiru eguneko egonaldia antolatu du Donostian. Arrasateko jubilatuentzat txanda ekainaren 3, 4 eta 5ean izango da. Irteera astelehenero goizeko 9etan Arrasateko Eroski Bidaian bulego parean eta buelta asteazken arratsaldean. Informazio gehiagorako deitu 900- 43 43 43 zenbakira.



MUSAKOLAKO JAIK ASTEBURUAN

Aurten ere Musakolako jaiak ospatuko dira umore on eta jai gogoz. Ostiraletik domekara arte era guztietako ekintzak izango dira. Mus, Tute Bolo txapelketak, kirol ikuskizunak, dantzaldiak, herri bazkaria. Denetarik primeran pasatzeko.

635 ume kantuan

Deba Garaiko eskola arteko abesbatzen topaketak egin ziren zapatuan. Goizez eta arratsalde, guztira zortzi ikastetxe desberdineko 635 umek kantatu zuten. Jende ugari hurbildu zen umeak kantuan ikustera. Orain dela bederatzirte hasi zen San Frantzisko Xabier ikastola topaketak antolatzen.

Arteziariak etorri

Zapatu gauean telefono dei bat jaso zuten Ertzaindegian Ignacio Zuloaga kalean, Elkartetxearen parean, bomba bat zegoela esanez. Ertzainak toki horretara joan, eta auto baten azpian kaxa susmagarri bat zegoela ikusi zuten. Arteziariei dietu, eta horiek kaxa indargabetu zuten. Kaxa barruan lurra zegoen.

Pankartak

J. L. Inñarran

Orain dela sei urte Jose Luis Inñarrara autoz joateko bidea itxita dagoela eta, bertako bizilagunek pankartak jarri dituzte Uharkape



Manifestazioak eta istiluak

Gestorak deituta joan den ostiralean eta larunbatean manifestazioak egin ziren Arrasaten, eta bietan istiluak izan ziren Ertzaintzaren eta manifestarien artean. Lehenengoa presoan Euskal Herriratzea eskatzeko egin zen, eta bigarrena arrazoi berdinagatik eta aurreko eguneko atxilotuen askatasuna eskatzeko. Ostiralekoan lau arrasatear atxilotu zituen Ertzaintzak: Aitziber Uribe-txebarria, Alberto Iturralde, Xabi Torres eta Luis Paga-aga. Epailearen aurrean deklaratu ondoren, aske geratu ziren zapatu arratsaldean.

Ertzaintzaren arabera, manifestazioek ez zuten baimenik eta ezin da autoendako errepidea moztu. Gestorak adierazi duenez, Ertzaintzak ez duen kargatzeko arrazoirik, istilu barik bukatzen direnek ere ez dute baimen berezirik izaten eta.

inguruan. Pankarten bidez, bidea lehenbailehen konpon dezala eskatu nahi diote Udalari. Udaleko Hirigintza Sailekoek adierazi dutenez,

hasi dira bidea konpontzen eta aurreikusitakoaren arabera urrirako amaituta egongo da. Bizilagunek, berriz, inguruko urbaniza-

zioan lanean ari diren kamioiek bidea erabiltzen badute, eurek ere erabil dezaketela uste dute.

Brigadak aurkeztu

Mexikon, Guatemalan, Nikaraguan, El Salvadorren eta Kuban egingo diren brigaden berri eman zuen Komite Internazionalistak asteartean. Antolatzaileen arabera, beste herrialde batzuetako errealitatea ezagutzeko aukera ematen dute brigadek.

JAIOTZAK

- Amets Vela Tarragona. Maiatzaren 8an.
- Unai Suinaga Mongelos. 7an.

HILDAKOAK

- Jesus Hernaez Aranzabal. Maiatzaren 3an. 67 urte.
- Restituto Rollan Sanchez. 6an. 65 urte.
- Eugenia Zuazubiskar Larrañaga. 7an. 82 urte.
- Miguel Biain Anduaga. 11n. 73 urte.
- Maria Asunción Balanzategi Ugalde. 11n. 63 urte.

**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

Errentegarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentegarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

BANKINTER

A G E N T E A

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentegarritasuna bermatzen du.

Errentegarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretariko batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri aprobeitza dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentegarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienez dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74

UDALEKUAK 96


Haur eskola 1.2.3. maila (3-5 urte)

TXANDAK

Uztaila 1-12
Uztaila 1-19
Uztaila 15-26

BABYLEKUAK

Lagun giroa
Jolasak
Ibilalditxoak
Pizina
Sorpresak



OHO 1.2.3.4.5.6.7.8. maila (6-14 urte)

TXANDAK

Uztaila 1-12
Uztaila 1-19
Uztaila 15-26

UDALEKUAK ARRASATEN

Txangoak
Jolasak
Kirolak
2/3 eguneko irteerak
Abenturak
Sorpresak

OHO 6.7.8 maila (11-14 urte)

Uztaila 1-13
(OHO 6.7.8 maila)
Uztaila 15-27
(OHO 3.4.5 maila)
Plaza mugatuak: 50

GARAIO ABUZTURAKO UDALEKUAK

Antzerkia
Piragua Malabarrak
Bizikleta Gaubelak
Trabesiak
Irratia/TB

OHO 3.4.5.6.7.8. maila (8-14 urte)

TXANDAK
Uztaila 14-28
Plaza mugatuak: 20

ESKUZ-ESKU IPARRALDE-HEGOALDE ELKARTRUKA

Musika
Dantza
Antzerkia
Txangoak
Mimoa

Akrobazia
Malabarrak
Gaubelak



BBB, FP, REM 1.2. maila (14-17)

TXANDAK
Uztaila 15-28
Plaza mugatuak: 35

EUSKAL HERRIARI BIRA



Harremanak Ohiturak
Lekuen ezagutza
Denda, Festak



Informazio gehiagorako

TXATXILIPURDI. Pablo Uranga, 4 • Tfnoa: 79 54 46

Arrasate Musikal

DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA

KONBOAK

Rock, Pop, Jazz musika taldearen erabilpena.
Baxu elektrikoa, Bateria, Latin perkutsioa. Piano modernoa.
Armonia, Jazza, inprobisazioa.



ATZERATUENDAKO PROGRAMA

Musika eta instrumentua (Orff sistema, Aschero sistema).
Dinamika eta psikomotrizitatea.
Entzuketak.

INSTRUMENTU ETA ESPEZIALITATEAK

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

HELDUENDAKO PROGRAMAK	BONBARDINA
MUSIKA HIZKUNTZA	KITARRA
HISTORIA, ARTE, ESTETIKA	BATERIA
ERA MUSIKALAK	PERKUTSIOA
KAMARAKO MUSIKA	BIBOLINA
TRANS ETA REPENT.	BIOLA
ARMONIA	BIOLONTXELOA
KANTUA	KONTRABAXUA
PIANO	BAXUA
AKORDEOIA	BANDA
TXISTUA	ORKESTRA
KLARINETEA	TALDE INSTRUMENTALA
OBOEA	BALLETA
SAXOFOIA	TRONPA
FAGOTA	TRONBOIA
TRONPETA	KREAZIOA



FOTO IMAGEN ARGAZKI




MATRIKULA EPEA ZABALIK (Plaza mugatuak)

Maiatzaren 13tik ekainaren 14ra arte • Iraileko lehen astean.

Lanegunetan, arratsaldeko 5etatik 8ak arte.

Posta Kutxatila 104 • 20500 ARRASATE • Tfnoak: 77 05 40- 79 06 83 • Faxe: 77 05 40

ORAIN DA ZURE AUKERA. ANIMATU!



* Gaizka Untzueta

Elkartasunez aurrera begira

Badirudi norabidea nahikoa galduta daukan gizarte honek "3. munduari" laguntzeko sortu diren hainbat talde eta erakundetan aurkitu duela argi izpi bat. Azkenaldion udaberriko lorak letxe ugaritu diren talde hauek jakin mina piztu dute eta baita jende askoren mesfidantza ere. Ez dago batere garbi oraindik hau moda bat den, gure kontzientziak lasaitzeko bide samur bat edo benetan lan egiteko dagoen esparru zabal bat.

Informazio falta hau zelabait gaintzeko eta, bide batez, gure taldeak luzatutako elkartasun proposamenaren gainean berba egiteko ekin diogu aste honetan zehar hamabostaldi internazionalista bat antolatzeari. Baina has gaitzen hasieratik ares-

tian aipatu dudana nahastea ez areagotzeko.

Komite Internazionalistak nazioarteko elkartasun mugimenduaren barruan koka daitekeen erakundea da, berezko nortasuna duena. Geure ustez, gaur egun munduan dauden desoreka eta injustizia egoerak sortzen dituzten kausen susterretara jotzea ezinbestekoa da. Beraz, ez gara talde huma-

.....

"Mexico, Guatemala, Nikaragua eta Kubako jendearekin bizi, elkar ezagutu, hartu-emanak eduki, azken finean, ikasi"

nitario bat, egoera hauek sortzen dituen sistema zalantzan jartzen duen taldea baizik. Lankidetzeta hutsa edota proiektuen aurretik sentsibilizazioa lana dugu oinarri.

Arlo askotan lan egiten badugu ere (edo ahalegindu behintzat) Brigadak dira ekintza solidario eta internazionalerako bultzatzen dugun ekintza garrantzitsuenetakoa. Urte osoan zehar joateko aukera egon arren, uda izaten da jende gehien joaten den sasoa (iaz, esaterako, 120 bat lagun joan ziren Hego Euskal Herrietik). Aurten ere pertsona interesatu guztiei geurea ez bezalako errealitateekin harremanetan jartzeko parada luzatzen digu elkartasun brigada hauen bitartez.

Mexico, Guatemala, Nikaragua eta Kubako jendearekin bizi, elkar ezagutu, hartu-emanak eduki, azken finean, ikasi. Lehenengo bi herrialdeetan batez ere komunitate indigenek sufritzen duten errepresio egoera salatzeari izango da helburua. Nikaraguan iazko ildotik jarraituz, "Venancia" emakume taldearekin edukiko ditugu harremanak eta Kuban, berriz, blokeoari ahalik eta ostikada handiena ematen saiatuko gara ikastetxe zahar bat konpontzen dugun bitartean.

Ea ba, animatu eta etorri elkartasun lana egitera!

* KOMITE
INTERNAZIONALISTAK

USTEAK USTE

ASTONIA

«Kristo ondoko ez dakit zenbatgarren urtean gaude. Arrasatearrak Deba eta Aramaio ibaiak elkartzen diren inguru osoa hartuta daukate (azkenengo konkista Bedoña)... Osoa? Ez! Ekialdean, Musakolako Errepublik Independententeak oraindik ere burua makurtu gabe eusten dio dragoi imperialistari...» eta bla, bla, bla. Horrelako zerbait antzeman daiteke urtero garai honetan astoniarrek ateratzen dituzten pegatinetan. Batean astoak dragoiari ostikoka, bestean makilaz, iaz Saint Jordiren ezpataz, aurten dragoi proba... Hunkigarria benetan. Baina dragoia onik irtetzen da guztietan. Hau horrela, Saint Jordi bera hona etorri ezean jai daukate ekialdekoek. Jai? Bertakoen esanetan, eta exageratu gabe, Musakolakoak dira inguruko festarik onenak, are gehiago, munduko onenak. Eta ez iezaiezu hala ez denik esan, badaezpada. Eskerrak Hemingwayk (badakizu, San Ferminak mundu osoan zehar famatu egin zituen idazlea) ezagutu ez zituela, bestela egun hauetan "giriz" beteta legoke auzoa. Beti bezala umorerik faltako ez delakoan, ondo pasau jaixak!

ANDER ETXEBERRIA

HURT X O A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Epelde


- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23


UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412



Jon Agirre Tenerife II espetxean dago.



Pako Robles Asturiaseko Villabona espetxean dago.

Roblesek eta Agirrek 15 urte bete dituzte kartzelan

Amnistiaren aldeko Batzordeak omenaldia antolatu die orain dela hamabost urte kartzelan dauden Pako Robles eta Jon Agirre preso arrasatearrei. Omenaldia igandean egingo da Zigarrolan. Hasteko manifestazioa dago deituta, eta jarraian omenaldia egingo da Zigarrolako San Antolin enparantzan. Omenaldian presoek familiartekoei oroigarri bat jasoko dute, eta Senideak elkarteko kide batek ere hitzegino du.

Pako Martin Osintxun atxilotu zuten, eta Jon Agirre Arrasaten. Atxiloketa garaian torturak jasan izana salatu zuten biek baina salaketek ez zuten aurrera egin. Bi preso arra-

satearrak hainbat espetxetan izan dira, eta hamar gose greba baino gehiago egin dituzte.


Gestorak ateratako idatzian esaten denez, helburua ez da hamabost urteak ospatzea, baizik eta, bi presoek eraman duten koherentzia politikoa gogoratzea. Gainera, eskal presoei ezarritako sakabanaketa politikak porrot egin duela uste du Gestorak. Idatzia- ren bukaeran, Arrasateko Udalean presoek Euskal Herriratzea eskatzen zuten puntua onartu zela gogoratzen da. Horregatik, hori onartu zutenei euren hitza bete dezatela eskatzen diete.

Ijitoendako ura eta argia

Musakolara etortzen ziren ijito errumaniarrak Arrasatera etortzen jarraitzen dute, baina orain Anbulategi inguruan geratzen dira. Udalak toki horretan argia eta ura jarri die, eta Joseba Ugalde, Gizarte Saileko batzordeburuaren esanetan, ordutik arazoa bideratuz doa. Ugaldek jakinarazi duenez, ijitoen etorrerak eragin duen egoera bideratu nahi dute, baina elkarrizketaren bidez eta ijitoen esku-bideak kontuan izanik.

Astelehenean SOS Arrazakeriako eta Kamelamus Adiquerar, Gipuzkoako ijitoen elkarteko lehendakaria etorri ziren Arrasatera, ostegunean eman behar zuten hitzaldia aurkeztera. Guztiek Arrasateko Udalaren jarrera txalotu zuten eta Udalak errespasioaren bidea ez hartzea interesgarria dela esaten zuten. Ijitoen elkarteko kideak, ijitoen aurka ateratako idatziek Gipuzkoako ijitoengan sortu zuten haserrea ere gogoratu zuten.

Arrasatera etortzen diren ijito errumaniarrak, La Calle izeneko aldizkariaren salmentatik bizi dira.



TOMAS ZUBIZARRETA ARIZETA

*Ailegatu zinen eta, konturatu gabe,
zure izateko moduagatik,
zure alaitasunagatik,
zure irrifarreagatik,
gure bihotzetan sartu zinen,
eta hemen jarraituko duzu, gure artean beti.*

Hilaren 10ean istripuz galdu genuen Tomasen aldeko meza.

San Frantzisko elizan
Maiatzaren 22an (egustena)
Arratsaldeko 7etan

ARRASATEKO UDALA ETA BERTAKO LANGILEAK



Seguruen, ohi moduan hile bukaeran egingo den plenoan onartuko dira aurrekontuak.

Opozisioaren aurrekontuak gobernu taldearendako

Ezusterik ez bada EAJk, PSE-EEk eta EAK egindako aurrekontuak onartuko dira hurrengo plenoan.

Hirukoak eta gobernu taldeak joan den asteen izandako hartuemanek ez zuten fruiturik eman, hirukoak garbi utzi zuen aurrekontuetako dirulaguntza garrantzitsuenak ez dituela aldatuko eta. Ordutik, alkateak plenoa noiz deituko zain dago hirukoa. Xabier Zubizarretak ez du jakinarazi noizko deituko duen aurrekontuak onartzeko bilkura, baina baliteke ohi moduan hile bukaeran egingo denean aztertzea.

Garbi ez dagoen beste kontu bat ere, HBk hartuko duen jarrera da. Lerrook idazteko orduan, Xabier Zubizarretak ez zuen jakinarazi emendakinak aurkeztuko dituzten, eta oraindik horren inguruko erabakirik ez dutela hartu esan zuen.

Astean jakin da, bestalde, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiak adierazi duela bertan behera geratu behar dela Enpresa

Berritzaileen Zentruaren jarraipena egiteko eratu zen batzordearen iharduera.

EAJk proposatuta eta PSE-EEren aldeko botoekin, (EA ez zen pleno hartan izan) martxoko plenoan onartu egin zen batzordearen eraketa. HBk legez kanpokoà zela esan eta errekurtsioa aurkeztu zuen. Auzitegiaren autoan esaten denez, batzordearen legezotasunean akatsak antzeman direlako batzordeak ezin du aurrera egin.

X. Zubizarretak esan bezala, alderdian pozik jaso dute auzitegiaren erabakia baina esan du penagarria dela Udalean horrela ibili behar izatea. EAJko bozeramalea den J. M. Loitik, berriz, garrantzia kendu dio auzitegiak batzordea ez onarteari. Loitiren ustez, batzordea onartzean erabili zen prozeduragatik (EA falta zenez ez zegoen quorum-ik) bota du atzera batzordea auzitegiak.

Auzitegiaren erabakia jakinarazten duen agiria Udalera heldu bezain laster, hirukoak aukera izango du erabakia errekurritzeko.

Gerra garaiko obusa Makatzenan

Asteartean gerra zibil garaiko obusa aurkitu zuen gizon batek Makatzena inguruan. Ortuari lanean zebilela, lurrazpian aurkitu zuen obusa. Ertzantzaren artezilaria etorri ziren obusa idargabetzera.

Egizanen parodia

Errepresioa salatuzko parodia egin zuen Egizanek asteartean. Arrasateko kaleetan zehar ibili ondoren, herri plazan su eman zioten hilkurtu bati. Senideak-eko partaideek ere parte hartu zuten ekintza horretan.

Egizaneko partaideek adierazi zuten, azkenaldian Arrasateko kaleetan ugarritu egin da errepresioa eta horrekin bukatu beharra dago.

Gurutze Gorriari ezetza

Deba Garaiko Gurutze Gorriak elikagaiak banatu nahi die beharrez dauden familiei. Hori dela eta, pobrezia planaren barruan laguntza jasotzen duten familien zerrenda eskatu du Udalean. Arrasateko Udalak zerrenda ez diola emango jakinarazi dio, datu horiek ezin direla zabaldu uste du eta. Hala ere, elikagaiak banatzeko modua aurkituko duela adierazi du Udalak. Seguruen, familiar-tekoiei laguntza horren berri emango diote, gero euren Gurutze Gorriari joateko.





MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

PUB HAIZEA






Frank O. Gehry & Associates

Guggenheim Bilboaren maketa, 1993.eko iraila

Maqueta del Museo Guggenheim Bilbao, septiembre de 1993

Model of the Guggenheim Museum Bilbao, September 1993

Photograph by Joshua M White.



Amaia Irizar arrasatearra Estatu Batuetan ari da ikasten. Aste Santuan bere gurasoen bisita aprobetxatuz New York-eko

Guggenheim museoa ikustera joan eta Amaiak postal batzuk erosi zituen. Postalei buelta eman eta euskaraz idatzitako

testoa irakurri zuen. Gure hizkuntzak ez du mugarik!



San Pankrazio eguna ospatu zuten Eskola Politekniko-ko ikasle eta irakasleek ostegunean. Ekintzaz betetako eguna izan zen. Goizean Euskadiko Kutxarako Krono igoera, mus txapelketa eta dantzariak. Eguerdian bazkaltzera joan aurretik txi-

kiteoa. Eguerdiko bilkura jaki gozoz, umore onez eta giro ederrean pasa eta gero, arratsaldean Jose Iparragirre taldearekin gorputza astintzeko aukera izan zuten. Gauean berriz, rock kontzertu bikaina eta ondoren ikasleek jakingo dute zer egin zuten.



San Juanetako tanborren hotsak entzuten hasi dira Arrasaten. Astean bi bider umez beteta egoten da Kalistroa eta musikaren erritmoa jarraitu guran, horixe ibiltzen dira makilak eskuan dituztela tanborra jotzen.

Erdiko kale. 79 19 37

**T
L
E
A**

Ferrerias. 79 87 62

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82



Jokin Zubillagak argazkian agertzen den perretxiku eder hori aurkitu zuen Gatzagako Artabila baserriko pagadian. Hongoa Boletus Eludis motakoa da eta kilo bat 100 gramo pisatzen du. Zapatuan aurkitu eta domekarako janda zuten. Ederra zegoela esan digute. Ea ba hurrengoan gonbidatzen gaituzten!

IZEN PROPIOAK

● **Joseba Ezpeleta Irizar**, 30 urteko arrasatearra AEDko lehendakari berria da. Josebak Bergarako Udaletxean egiten du lan eta Miren Arregi ordezkaturko du.

● **Kaitin Allende** 23 urteko Arrasatearra ARKOk publizista berria da. Kaitinek publizitatea ikasi zuen Leioako unibertsitatean. Aurrez beka baten bitartez sei hilabetez Arrasate Irratian egiten du lan eta ARKOk ateratako Gida Komertzialean ere ibili zen.

Iparraldeko Ustaritze herritik 16 neska mutil etorri ziren Arrasatera. 9 eta 10 urte arteko gaztetxo hauek Hego Euskal Herriko hainbat herri ezagutu dute bidaian eta baita arrasate ere. Txatxilipurdiko lagunekin eguna igaro eta, nola ez? guri bisita egin eta gero, Iparralderantz abiatu ziren. Gainera Arrasate Telebistako albiste emanaldia zuzenean ikusteko aukera izan zuten.



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58


ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK


LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabilioia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE



Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!

Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Final Laurdenak.*
- *Emaitzak eta Sailkapenak*
- *Protagonistak:*
Eduardo Santiago

Final laurdenetan dago Zaldibar txapelketa. Hemendik aurrera azken txanpa faltako da aurtengo irabazlea nor den jakiteko. Hirugarren faseko azken ihardunaldian talde onenek lortu zuten aurrera egitea. A taldean Argi Ibili eta Arrasate Kirolak daude sailkatuta. B taldean Okoretegi taberna eta Fosforos. Dn Adelaida Haizea eta Trikiti. Azkenean Cervecera Leintz eta Totem. Falta diren neurketen bukarran berdinketa nagusituko balitz 10 minutuko luzapena jokatu da eta tarte horretan lehen gola sartzen duen taldea irabazlea izango litzateke. Baina 10 minutu horietan berdinketa hautsiko ez balitz hautsiko penaltietara jo beharko litzateke.

Bestalde, ekainaren 22 eta 23an Gipuzkoa mailako lehen San Juan futbito txapelketa berezia jokatu da Arrasaten. Bertan Zaldibarko bi taldek hartuko dute parte. Antolatzaileek jokalaririk onenekin bi talde osatu dituzte. Arrasate Zaldibar A taldean. Atezainak: David Zaitegi (Irati STS) eta Aitzol Unanumo (Sokoakoak). Jokalariak: Txistorra (Pub People), Imanol (Fosforos), Iker Balzategi (Sokoakoak), David Monillo (Kamasutra), Joseba (Totem), Juan Luis Agirre (Trikiti), Txomin (Okoretegi Taberna) eta Ramon Tena (Betrayer). Arrasate Zaldibar B taldea: atezainak Zurdo (Adelaida haizea), Iose (Kakajauri). Jokalariak: Kepa (Irati STS), Gotzon (Perrahotsa), Nando (Cervecera Leintz), Madinabeitia (Adelaida Haizea), Iker Retes (Insert Coin), Jon Onandia (Petroleros), Unai Idigoras (Irati STS) eta Roberto Carabias (Txe-yenex).



Jesus J. Giraldo

Liseriketa aparatua

- Lagun-Aro
- PREVIASA
- Foru Aldundia
- Partikularrak

Astehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2.B Tfnoa: 79 04 14 ARRASATE

Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	3	3	0	0	17	8	6
Arrasate Kirolak	3	1	1	1	17	15	3
Betrayer	3	1	1	1	13	12	3
AC Surcos	3	0	0	3	9	21	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Okoretegi taberna	3	2	1	0	12	6	5
Fosforos	3	1	2	0	11	8	4
Irati STS	3	1	1	1	12	8	3
Insert Coin	3	0	0	3	5	18	0

A Taldea

Argi Ibili 6 - Arrasate Kirolak 5
AC Surcos 2 - Betrayer 8

B Taldea

Fosforos 3 - Irati STS 3
Insert Coin 3 - Okoretegi tab. 4

D Taldea

Adelaida Haizea 6 - Kamasutra 1
Trikiti 6 - Sokoakoak 5

E Taldea

Totem 2 - Cerveceria Leintz 2
Perrahotsa 1 - Pub People 3

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	3	2	1	0	12	4	5
Trikiti	3	2	1	0	9	7	5
Kamasutra	3	1	0	2	8	12	2
Sokoakoak	3	0	0	3	11	17	0

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Cerveceria Leintz	3	2	1	0	20	6	5
Totem	3	1	2	0	10	6	4
Pub People	3	1	1	1	9	14	3
Perrahotsa	3	0	0	3	3	16	0

Hurrengo partiduak

Final Laurdenak

Larunbata 18

Zaldibar

16.00 Okoretegi taberna - Totem
17.00 Adelaida Haizea - Arrasate Kirolak

Igandea 19

Zaldibar

11.00 Argi Ibili - Trikiti
12.00 Cerveceria Leintz - Fosforos

Protagonista

Eduardo Santiago (Fosforos)

— Neurketa bizia jokatu duzue Iratiren kontra?

— Ikaragarria izan da, emozioa pilpilean izan da azkenera arte. 2 eta 0 galtzen hasi gara. 3 eta 2 jartzea lortu dugu eta neurketak gurea zirudienean Iratikoek berdinketa lortu dute. Berdinke-tarekin bagenekien gu sailkatu behar ginela.

— Nola ikusi duzu Irati taldea?

— Ondo. Dena dela horrelako partiduak normalean ez dira onak izaten. Tentsio eta urduritasun handiz jokatzeko dira eta azkenean golak dira garrantzitsuenak aurrera egiteko.

— Euria egin arren, harmailak jendez beteta egon dira?



— Hori asko eskertzen da, batez ere galtzen zoazeko desmotibatuta zaude-nean. Jendearen txaloak eta oihuak entzutea jokalariei guztioi gustatzen zaigu eta horrelako neurketa garrantzitsuetan gehiago.

— Fosforos faboritotzat hartzen da nola ikusten duzue etorkizuna?

— Horrek erantzunkizun handia eskatzen dio gure tal-

deari. Jende guztiak faboritoak garela dio baina guk ez dugu hain garbi ikusten. Une honetan sailkatu garen talde guztiak aukera berdinak ditugu irabazi edo galtzeko.

— Ilusioarekin finalera heltzeko?

— Bai jakina. Borrokan aritu gara heldu garen tokira heltzeko eta orain ilusi handia daukagu finalari begira. Behin final laurdetan guztion helburua azken partiduan dago jarrita.

— Zein talde ikusten duzu indartsu?

— Denak daudela esango nuke. Heldu garen tokira heltzeko gogor egon behar da baina hemendik aurrera zorteak eragin handia izango du. Aurkariak baino gol gehiago sartzea izango da guztion helburua, ekainaren batean finala jokatzeko.

Labur

■ Irati STS eta Fosforosen arteko partidua izan zen ihardunaldiko biziena. Canacho epaileak jasotzen ari zen irainengatik minutu batzutan eten egin zuen neurketa baina antolatzaileekin berba egin ondoren berriro hasi zen eta hortik aurrera normaltasunez burutu zen norgehiagoka..

■ Betrayerrek 8 eta 2 irabazi zion AC Surcosi. Hasiera batean bera sailkatuko zela zirudien baina gol-average-an gol bateko aldeaz Arrasate Kirolakek eskuratu zuen bigarren postua. Puntuaketa parekatuta geratu dira bi taldeak.

■ Hirugarren faseko azken ihardunaldian 60 gol sartu dira Zaldibar txapelketan. Gol gehien Betrayerrek sartu ditu 8 guztira. Gutxien berriz, Kamasutarak.

● *Jon Suinaga eta Maria Retegi*

Mugarik gabeko injineruak

Iaz, mugarik gabeko injineruen taldea eratu zen Eskola Politeknikoan. Taldeak oraindik ez du proiekturik garatu, lehendabizi ezagutzera eman nahi dute eta. Hori egindakoa, hirugarren mundurako proiektuak garatzen hasiko ei dira. Gogoia behintzat badute.

- Noiztik Mugarik Gabeko Injineruak Eskola Politeknikoan?

- Bilboko Mugarik Gabeko Injineru taldeko partaide batzuk Eskola politeknikora etorri ziren taldearen berri ematera. Euren taldea eratzerantz animatu gintuzten, eta horrela Arrasaten ere taldea osatzea erabaki genuen iaz. Aurrera begira proiektuak lantzeko asmoa badugu ere, orain taldea ezagutzera ematen ari gara.

Euskal Herrian hiru talde daude: Bilbokoa, Donostikoa eta Arrasatekoa eta guztiok harremanetan gaude. Hori bai, Mugarik Gabeko Injineruen taldea ez dute injineruak bakarrik osatzen, laguntza nahi duten guztiok parte har dezakete. Taldean badaude beste ogibideren bat duten lagunak.

- Zenbat lagunek osatzen

duzue Arrasateko taldea?

- Gutxigora behera 30 lagunek. Batzuk lanean ari gara eta beste batzuk oraindik ikasten. Taldea azpildetan banatuta dago eta bakoitzak zeregin bat dauka. Gu biona, adibidez, taldea ezagutzera ematea da besteak beste.

- Zer egin dezakete injineruak hirugarren munduaren alde?

- Gure helburua hirugarren mundurako proiektu teknikoak garatzen laguntzea eta sentsibilizazio kanpainak egitea da. Proiektu teknikoak egiteak ez du esan nahi kanpora joango garenik. Taldearen helburua ez da bidaiatzea, hemendik ere lagun dezakegu. Hirugarren munduari ezezik, laugarrenari ere lagunduko diogu, hau da, marginatuei.

- Egin dezakezuen azalzteko adibiderik bada?

- Hemendik ordenagailuak eramanda Bilboko injineru taldekoek informatikako gelak antolatu zituzten Saharan. Gainera, taldeko kide bat ere joan zen informatika irakastera. Eskolak Saharako irakasleek jaso zituzten, eta ondoren, horiek ikasleei irakatsi zieten. Proiek-



tu hori bigarren fasean sartu da, eta orain, tornuak eta fresatzaileak zelan montatzen diren irakatsiko diete.

- Baduzue proiekturik buruan?

- Sarajevon eskola bat antolatzeke eskaera egin dute, eta proiektu hori zertan den aztertzen ari gara. Bestalde, Ekuadorreko nekazari batzuen aldeko sinadurak biltzen ere ari gara, burutu ez duten hilketa bat leporatu nahi diete eta. Garrantzitsuena zera da: proiektuak hirugarren mundutik irten behar direla. Kontua ez da guk esatea zer egin behar duten, euren eskatu behar digute laguntza. Horrez gain, ahal den eta lan gehienak euren egin ditzaten nahi

dugu. Proiektuaren amaieran, gainera, ziur egon behar dugu euren kabuz jarraitzeko gai izango direla. Bukatzeko esan ez dugula proiektu bat garapen ekonomikoagatik bakarrik aurrera eramango, osasuna eta hezkuntza garatzea ere garrantzitsua izango da.

- Nondik lortzen duzue dirua?

- Taldeko bazkideok kuota txiki bat ordaintzen dugu, baina dirulaguntzak eskatzeko asmoa dugu. Udalari, Diputazioari, Eskolari eta beste batzueri dirulaguntza eskatuko diegu. Eskola Politeknikoak, bestalde, bilerak egiteko lokala uzten digu.

- Mugarik gabeko talde asko sortu da azkenaldian. Modan dago?

- Taldea ez dugu eratu modan dagoelako. Gure asmoa gauzak egitea da. Taldera etortzen den jendea sentsibilizatuta dago.

● **“Taldea ez dugu eratu modan dagoelako. Gure asmoa gauzak egitea da. Taldera etortzen den jendea sentsibilizatuta dago”**

ILUNA
taberna



Elkano, 23
Tfnoa. 79 23 78

ALKANADRE

taberna

Kale Txiki, 5
Tfnoa. 79 20 46

TXANPI
BODEGA

Gipuzkoa Etorbidea, 18
Tfnoa. 79 20 22

HOSTAL
TABERNA
JATETXEA

Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tfnoa. 79 20 50


MENETA
TABERNA
JATETXEA

Gipuzkoa Etorbidea, 48
Tfnoa. 79 65 31

Zatoz!
TXINATO
KAFETEGIA

Elkano kalea, 9
Tfnoa. 79 20 95

MUSAKOLAKO JAIAK 96



**Etorri Musakolara,
elkarrekin elegante
pasatuko dugu eta!
Eh! giro jatorra
egongo da!**

Basilio

**Bakailoan
espezializatur**

Gipuzkoa Etorbidea, 37
Tfnoa. 79 81 53

**JUBILATUEN
ELKARTEA**

Gipuzkoa Etorbidea, 45
Tfnoa. 77 12 66

BEBERLY

Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tfnoa. 79 16 99

IOSU
KAFETEGIA

Elkano kalea, 25
Tfnoa. 77 03 66

KAT *a* **IDE**
J A T E T X E A

Plater konbinatuak
eta bokatak

Kataide poligonoa, 10 bis
Tfnoa. 79 60 10 / 77 10 80

JEY
JULIWER

Elkano kalea, 36
Tfnoa. 79 22 11

LA ESTRELLA
TABERNA
KAFETEGIA

Elkano kalea, 3
Tfnoa. 79 20 82



San Isidro kontzentrazioan estatu osoko motozaleak etorri ziren jai giroan asteburu oparoa pasatzeko.

Motozaleen mundua

Itxaro Zubillaga

Larruzko arropak, motor ikusgarriak, adin, filosofia eta toki desberdineko jendea, gasolina eta olio erre usaia, ile luze eta motzak, tatuaiak, garagardoa han eta hemen, giro aparta, hori da hain zuzen ere moto kontzentrazio baten radiografia.

Arrasateko Motozale Elkartek esperientzia handia du era honetako kon-

zentrazioak antolatzen, 1978 urtean jaio zenetik makina bat egin ditu eta. Musakolan garai hartan motorrez maiteminduta zeuden gazte batzuk elkartu eta talde bat osatzeko premia ikusi zuten. Horrela gauzatu zen motozaleen taldea. 1982tik 1985era hiru kontzentrazio egin zituzten. Ondoren bost urte geldirik egon ziren eta 1990. urtean berriro beste motozale amorratu batzuk batu eta ekintzak antolatzen hasi ziren. Urtean zehar era guztietako ekintzak antolatzen dituzte: Trial eta Trialsin txapelketak, auzoetako jaietan motorren inguru-


ko ekintzak, kontzentrazioak eta une honetan irailerako motocros froga bat antolatu nahi dute Mojategiko zelaian baimena lortzeko Udalarekin jarri dira harremanetan. Ekintzak antolatu bai, baina nahi baino arazo gehiagorekin. Motozaleen elkarteko lagunek ez dute gustatuko litzaikeen beste laguntzarik. Dirua bazkideen kuotetatik, kontzentrazioko txoznatik eta lokalean duten taberna txikitik ateratzen dute. Guztira 109 bazkide badira ere, elkartea mugitu 40 lagunek egiten dute eta taldeka dituzte banatuta urtean zeharko ardurak.

ZER DA KONTZENTRAZIO BAT

Lagunak egin, motorrak ikusi, beste toki eta ohitura batzuk ezagutu, eta hori guztia jai giroan egin. Arrasate Motozale Elkarteko Mertxe, Rafa, Fernando, Jose Angel eta Iñi-gorentzat kontzentrazioak gauza berezia dira, motorrak eta trajeak erakusteko baino zerbait gehiagorako balio dute. Eurek lagun asko eta onak egin dituzte kontzentrazioetan. Batipat estatu mailan mugitzen dira eta urtean zehar 15 kontzentrazio baino gehiagoka joaten direla esan digute, astebukaeretan egiten dire-



Motorra handia edo txikia izan, denak motozale.



Harley-ak ikusteko aukera ere izan zen kontzentrazioan.

netara, gazte hauek astean zehar lan egin behar dute eta. Mertxe eta Fernandori Lizarrako kontzentrazioa gustatzen zaie gehien antolakuntza bikaina dagoelako. Jose Angelentzat onena Arrasatekoa da, hala ere oso gustora joaten da Kantabriako Ampuerokora, saltsa berezia egoten ei da bertan. Inñigok ez du bat gogokoen. Iaz Frantzia izan zen eta bertakoak oso desberdinak badira ere, pozik itzuli zen. Dena dela guztiak bat etorri dira Hueskatik gora egiten diren kontzentrazioak onenak direla esatean. Behaldekotan gano-ra gutxiago egoten da. Urtean zehar hiru kontzentrazio garrantzitsu daude estatuan, Valladolideko Pinguinos deitutakoa, beharbada arrakastatsuen 16.000 pertsonatik gora biltzen ditu, Jesus Gilek Marbellan antolatzen duena eta ekainean Santiagokoa.

Kontzentrazio bat antolatzeko 1.200.000 pezeta inguru behar da diruari dago-kionez eta hilabete mordoan denbora begiratuz. Sariak ere banatu behar dira eta eske-

“Arrasate Motozale Elkarteko, lagunek kontzentrazioa aurrera ateratzeko laguntzen ibili diren arrasatearrak nahi dituzte bereziki eskertu”



“Euria eta hotza ez ziren aitzaki izan 150 motor baino gehiago elkartzeko”

rrak arrasatearrek kolaboratzaileak dituztela bestela ezin-gukete antolatu, bakarrik saritan 120 mila pezetako gastua dago. Inskripzioa ez da garestia 2.000 pezeta.

Kontzentrazioetan adin eta estilo guztietako jendea ikus daiteke. Hori bai, motozale amorratuak izan behar derrigorrez. Arrasatera Valentzia, Lerida,artzelona, Andorra eta Euskal Herriko jendea etorri zen.

Motozale hauek kontzentrazio batetik bestera ibiltzen dira ahal duten asteburu guztietan. Lagunak egin, motorrak ikusi eta jai giroan asteburua pasatzea izaten da helburua. Baina ez pentsa guztiak moto garesti eta abiadura handikoa dutenik. Rafael Guijarro Leridatik Honda Scooters 49 zm/ Kubikodun batekin etorri zen “Goizeko 8etan irten naiz etxetik eta gaueko 8etan heldu naiz Arrasatera. Motorrak gehie-nez 60 km/orduko hartzen du baina ez dut presarik izaten eta pazientziarekin toki guztiara heltzen naiz. Gainera hau ez da egin dudana bidaia luzeena, Alemaniako Elefante kontzentrazioan egon nintzen eta

datorren astean Tunezekora noa”. Adibide hori dena dela, ez da ohikoa motorren topaketetan. Motor garesti, dotore eta ondo zaindutakoak dira nagusi. Orioko Jonek 4 milioi balio duen Honda Goldwing 1.500 bat du “Emaztea baina gehiago zaintzen dut. Zainketa berezia, garbitasun handia eta mimo asko behar du motor batek”. Zaintzea garestia izan daiteke “abiadura bizian bazabiltza gurpilak, katea eta hainbat pieza aldatu behar dituzu eta garestia egiten da mantentimendua” dio Villabako Eusebiok. Valentziako Valerio motorren piezak garestiak direlako kezkatzen da.

ARROPA ETA KASKUAREN GARRANTZIA

Motorra zaintzea bezain garrantzitsua kaskua eta arropa onak edukitzea da. Guztiak ados daude motorrean ibiltzeko larruzko arropa onak erabiltzea beharrezkoa dela esatean. Trajeak 150 mila pezetatik 200 mila pezetara aurkitu daitezke eta buru babeslea ona izan dadin 50.000 pezetatik gora ordaindu behar da. Jen-



600 kilometro egin eta gero 8 lagun hauek Valentziatik etorri ziren Arrasatera .

de hori askotan Andorrara joaten da arropak askoz merkeago aurkitu daitezkeelako. "3 hilabete dela istripu bat izan nuen eta ondo jantzita nindolako urratuak baino ez nituen izan". Gasteizko Los Katarros diren elkarteko Antoniok ibilbide motzetan ere kaskua eraman behar dela gogoratzen du. Arropak eta kaskua erostera-koan motozale batzuk markei garrantzia ematen die baina ez dira gehienekoak.

Zainketa eta jantziaren garrantziaz motozaleak bat badatoz, ez da bera gertatzen zein den motor onena galde-tzerakoan. Jonentzat duen Honda Goldwing.1500 da onena. 4 milioi balio eta gero, beharkoona izan! Azkarrena berriz, CBR 900. Ermuako Oscarri BMWak gustatzen zaizkio baina ahal balu Harley Davidson bat erosiko luke. Rafaeli motor ruteroak, lasaiak. Berak dioen bezala 45 urte ditu eta ziztu bizian ibiltzeko sasoi pasatzen da.

ADIN GABEKO BIZIMODUA

Motozaleen artean ez dago

adinik. 17 urteko gazte bat edo 65 urteko ez hain gaztea giro berean ikus dezakezu eta gustora biak. Adinaren gainetik motorrekiko maitasuna dago. Bi gorpulen gainean ibiltzen diren lagun hauek ez dute ulertzen euren artean bronkak eta pandillak sortzen direla pentsatzea "motozaleen artean adiskidetasun eta harreman ona dago, sekula ez duzu motozale bat bide ertzean botata ikusiko". Beste batzuek Ameri-

ketako pelikula gehiegi ikusten ditugula uste dute "gure artean lagun taldeak sortzen dira eta elkarrekin joaten gara baina iskanbilak ez dira izaten. 17 urterekin hasi nintzen motorrean, orain 46 ditut eta ez dut taldeen arteko bronkari-ki. Pike batzuk egoten dira baina normala da".

Abiadurari dagokionez motozaleek garrantzia ematen diote batez ere aurreratze-ko orduan moto indartsua

izatea gomendagarria delako, baina ez zaiola beldurra izan behar pentsatzen dute "beldurra ez, errespetoa bai eta argi izan eskuartearen duzun ibilgailua nolako den eta noraino hel zaitzkeen". Moto txikiak errepidera irtetzen direnean kotxeen eta abarren beldurra izaten duten arren, moto handiekin ez da bera gertatzen. Jonen berbetan errepidean azkarrenak agintzen du baina era berean egia da istripu baten aurrean ibilgailu handienak abantaila guztiak dituela".

Kontzentrazioetara joaten diren motozale hauei taldean bidaiatzea gustatzen zaie eta atzean paketea eramatea ez dela astuna diote, bidai luze-tan eskertu egiten da gainera. Leridako Rafaelak, beste arazo bat izaten du, duen moto-gatik "niri taldean joatea gustatzen zait baina dudan motorrekin beti atzean joan beharra izaten dut".

Motorrak, motozaleak mundu berezia. Ikaragarria askotan eta arriskutsua beste batzutan. Dena dela, bi gorpulen maitale hauen bizitza ulertzea zaila egiten da kanpotik, bertako giroa, eta motozale hauen izaera ezagutzeko berehala ohartzen zara jende jatorra eta lagun lagunak direla.

Motoen alde mingarria

Motoen mundua erakargarri eta ikusgarria izan arren, sarritan albiste txarren iturri bilakatzen da. Pasa berri den asteburua beltza izan da bi gorpulen maitale-entzat. Ostiral gauean Tomas Zubizarreta Udaletzeko arkitektoak bizia galdu zuen istripu bat izan eta gero. 32 urteko gazteak Lasarten izan zuen zoritxarrezko istripua Domekan berriz, Julen Bolinaga "Jul" eta Maria Jesus Izquierdo "Txus" arrasatearrek beste istripu bat izan zuten San Isidro elizaren parean. Lekukoen arabera kotxe bat euren errepidera sartu zenean gertatu zen istripua eta ondorioz bi gazteak larriki zauritu ziren. Une honetan euren osasun egoera askoz hobea dela esan daiteke eta hainbat ebakuntza egin behar badizkiote ere ondo jarriko direla diote sendagileek.

Motorrak beraz bi alde ditu baina alde txarra askotan ez da motor gidarien errua izaten. Errepidean dabilten beste ibilgailuen erruz makina bat istripu izan dute motozaleek. Gainera denok dakigun bezala motor baten kontra joz gero, gehinetan beti ez esan arren, motozaleak dira kaltetuenak. Hori dela eta, errepideetan ibiltzen garenok ezin dugu ahaztu bidea guztiona dela.



Goizeko 11etan hasiko da Arrasatek Oñatira doan lasterketa.

Arrasate-Oñati lasterketa domeka honetan

Jantzi kirola euskaraz lemapean XIV. Arrasate Oñati lasterketa burutuko da domekan. Gero eta arrakastatsua goa bihurtu da bi herri hauek elkartzan dituen 11 kilometro eta 300 metroko froga. Gizonezkoetan errekorra Diego Garciak du 34 minutu eta 31 segunduko

denborarekin. Emakumeetan Maria Luisa Irizarrek. Bere denbora 41 minutu eta 3 segundu. Bi korrikalari bikain hauen denbora gaintitzen dutenentzat sari bereziak banatuko dituzte antolatzaileek. Lasterketa goizeko 11etan abiatuko da Portaloitik.

Eskoriatza-Arrasate kroa

Arrasate Kirolak Eskoriatza-Arrasate herri lasterketa burutuko da ekainaren 2an. Izenematea 500 pezetakoa da eta maiatzaren 22tik aurrera egin ahal izango da Arrasate Kirolak denda edo Iturripen.

Jon Azkorra bigarren

Arrasate afizionatu taldeko Jon Azkorra bigarren postua eskuratu zuen Abadiñoako lasterketan zapatuan. Sprintean bukatutako frogan Gorka Gerrikagoitia helmugaratu zen lehen postuan. Domekan berriz, Atarrabiarra joango dira goizeko 9.30etan hasiko den lasterketara. Asteazkenean Tolosan erlojuz kontrako Gipuzkoako txapelketan Roberto Cuartero eta Jabier Miguel izango dira

Pilotariak San Juan txapelketan

Eskuz binakako San Juan txapelketako neurketak domekan goizeko 10etatik aurrera Iturripen. Miranda II Lizarralde batetik eta Lazkano-Nafarrate bestetik izango dira lehian lehen neurketan. Hurrengo partidua Miranda I-Dominguez I eta Alzelai-Etxebeste.

Mondra preferentera jeitsi da

3. mailako Mondra preferentean dago denboraldia bukatzeko ihardunaldia bakarria falta denean. Zibojevicen mutilek urte kaxkarra egin eta gero, azken txanpan ezin izan dute 3. mailari eusteko beharrezkoak ziren puntuak lortu.

Orain Mondrak beste partidua bat jokatu du Getxoren kontra, partidua zapatuan jokatu da arratsaldeko 5.30etan Getxon. Lehen bueltan talde biek elkarren kontra jokatu zuten banako berdinketa nagusitu zen.

Urbina Maltzagak agur play offari

Urbina Maltzagak ezin izan zuen Pamesa Valencia taldearen kontrako partidua irabazi. Samaniegoren mutilek 84 eta 53 galdu zuten bigarren zati txarra egin ondoren. Arrasateko jokalari

azken partidua jokatu dute domekan eguerdiko 12etan Iturripen. Urbina Maltzaga eta Montehuelva izango dira aurrez aurre. Denboraldiko azken partidua izango da Urbina Maltzagako jokalarientzat. Ondoren oporrak.

egizabal
poltsak • oinetakoak

Ferrerias, 9
ARRASATE
T9 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

Gimnasia erritmikako erakusketa domekan Musakolan

Arrasateko Gimnasia Erritmikako taldeak erakusketa bat egingo du domekan eguerdiko 12etan Musakolako kiroldegian. Taldeko 75 gimnastek ariketa desberdinak egingo dituzte tapizaren gainean. 4 urtetik 18 urtera arteko neskatilak entrenamendutan ikasitako praktikan jartzen ikusi ahal izango da erakusketan. Txikitxoek Arantzazu Zubia irakaslearekin ikasitako bi dantza egin-

go dituzte eta handiagoak kirol honetan ohikoak diren tresnekin arituko dira eta lurreko ariketa ere egin behar dute. Emanaldiak ordu t'erdi iraungo du. Gimnasta nagusienentzat Gipuzkoako Txapelketari begira egingo duten azken saioa izango da. Hauek maiatzaren 25an zita garrantzitsua izango dute Arrasaten, orduan Gipuzkoako gimnasia erritmikako txapelketa burutuko da eta.



Musakolako kiroldegian 75 gimnasta elkartuko dira.

Urrezko eta zilarrezko dominak Arrasateko atletentzat

Euskadiko Txapelketan parte hartzeko gutxieneko denborak lortu zituzten domekan Arrasate Atletiko Taldeko hiru atletak. Anartz Azkarragak urrezko domina lortu zuen disko jaurtiketan eta brontzea pisuan. Anartz kadetea da eta disko jaurtiketan 36 metro eta 78

zentimetroko marka gaintu zuen. Pisuan berriz, 12 metro eta 23 zentimetro. Estatuko jaurtiketa onena lortzeko bidean da Anartz gaztea. Unai Sarabiak 100 metroko frogan hartu zuen parte, 11 segundu eta 61 ehuneneko denbora eginez 6. tokian geratu zen; sail-

katze frogan bigarren postua eskuratu zuen 11 segundu eta 37 ehuneneko denborarekin. Estatuko errekorra 11 segundu eta 35 ehunenekotan dago. Oliver Fernandez 4. tokian sailkatu zen 600 metrotan. Egindako denbora minutu bat 31 segundu eta 3 ehuneneko.

Oliverrek joan zen astean urrezko domina lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan. Datorren asteburuan bestalde, taldekako Euskadiko Txapelketa burutuko da Anoretan eta Arrasateko ordezkariak bertan izango dira. Euren helburua lehen mailan jarraitzea da.

Nueva ZARAGOZAK heritarrak

- Amaia Antzokian
- Maiatzaren 18an (larunbata)
- Gaueko 10.30etan.

Sarrerak: 500 pta.
(Gazte-Txartelarekin, langabetuak eta AEDko bazkideak 300 pta.)

AEDko antzerki taldearen aurkezpena!



Nueva Zaragozako herritarrak

AEDko antzerki tailerraren estreinaldia


Jose Martin Urrutia elgoibartarrak sortu duen "Nueva Zaragozako Herritarrak" antzerki obra taularatuko dute bihar AEDko antzerki tailerrean ibili diren 12 arrasatearrek.

AEDko antzerki tailerreko aktoreak otsailaren 24an hasi ziren lehen eskolak hartzen eta denbora guztian Jose Martin Urrutia bera izan dute irakasle. Jose Martin, elgoibartarra izan arren, Arrasaten bizi da eta Elgoibarko EKEKEI antzerki taldeko partaidea da duela 10 urte. Horrez gain, Durangoko ikastolako psikologoa eta bertako antzerki tailerreko irakaslea ere bada. AEDko antzerki tailerreko partaideekin berak orain urtebete sortu zuen obra lantzea erabaki zuen eta lan horretan eman ditu azken 3 hilabeteotako zapatu goizak, orduan biltzen baitzen 16-28 urte bitarteko 12 aktoreekin.

Hogei pertsonaia

"Nueva Zaragozako Herritarrak" antzerki obrak 20 pertsonaia inguru ditu eta antzerki tailerreko aktoreak 12 baino ez direnez bakoitzak pertsonaia bi edo hiruren paperak bete behar izan ditu. "Dramatizazioaren aldetik arazoa izan da hori baina bere alde ona ere izan du. Badaude antzerkilari batzuk baliabide asko dutenak, beraz, kapaz izan dira pertsonaia bat baino gehiagoren izakerak interpretatzeko" dio Jose Martinek.

Bestalde, tailerrean izena eman zuten gehienek antzerkiarekin egiten zuten lehen kontaktua ez zela esan behar da, hau da, esperientziadunak ziren. Alde horretatik guztiek



Jose Martin Urrutia "Txotxe" da zuzendaria eta obraren sortzailea.

maila beretsua dutela dio Jose Martinek.

Lan antolaketa

Bi fasetan antolatu ditu Jose Martinek antzerki tailerreko eskola orduak. Lehengoan deshinezioa eta antzerki teknikak landu dituzte. Bigarrenean berriz, obrari eutsi eta testuak irakurtzen hasi ziren. Bigarren fasean ere, paperak banatu eta entsaioekin hasi ziren. Hori guztia hiru hilabetetan.

Baina Jose Martinek azaltzen duenez, gehien kosta den lana, talde bateratu eta zentzudun bat lortzea izan da. Tailerrean hasieran izena eman zuten hainbatek utzi egin behar izan zuten arazo desberdinetatik eta horregatik, jende berria

sartu behar izan da. Horrek taldearen egonkortasunaren eragina baina azkenean, maiztaren lehenengo asteburuan Ozaetako aterpetxean egin zuten 3 eguneko egonaldian, taldea sendotzea eta entsaioak borobiltzea lortu zuten.

Obraren nondik norakoa

Zabortegi batean bizi diren gazte batzuk dira istorioaren hasierako protagonistak. Gazte bakoitza bere aldetik bizi da baina asteen behin guztiak elkartu eta bakoitzak zabortearen aurkitu duen gauzarik baliotsuena besteei erakusteko bilera bat egiteko ohitura daukate. Horietak bilera baten gazte batek topatu duen poema liburu bateko poesia bat irakurtzen die bere lagunei, non historiako pertsonaia handiei buruzko galderak egiten diren. Liburuak sortu dien harridurari buruz hitzegiten ari direnean denboraren semeak, "Geroa" k istripu bat izaten du bere espazio-untzian eta zabortearen erortzen da. "Geroa" k, gazteekin hitzegin ondoren, iraganeko pertsonaiak bere espazio-untzian zabortearen ekarri eta epaiketa bat egitea proposatzen die gazteei, horrela, gaur egun historia liburuek pertsonaia handi hauei buruz esaten dituzten gauzak benetakoak diren ikusteko. Pertsonaiak iraganetik ekarri eta sekulako epaiketa antolatzen dute zabortearen.

Maiatzak 20 - Ekainak 2

HARRESI ARETOAN



Ahoz aho, belaunez belaun
Euskararen transmisioari buruzko
erakusketa ikusgai

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

ALTZARIAK DEKORAZIOA

ARROZTEGIA



San Juan, 1 (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxe: 76 54 91

Etxe-Aundi

Torrauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



**Dagoeneko zabalik dago Etxe-Aundiko hotela.
Zatoz ezagutzera!**

“Nire haurtzaroko Arrasate”


J. M. Velez de Mendizabalen azken liburua

Jose Mari Velez de Mendizabalek Kutzaren eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin idatzi duen azken liburua aurkeztuko da maitzaren 21ean Harresi Aretoan: “Nire haurtzaroko Arrasate”. Liburu honek bere belaunaldiko lagunen haurtzaroaren oroitzapen mota asko jasotzen du, gutxi gorabehera, 1950. urtetik 1960.era artekoak.

Sei hilabeteko lana

Jose Mari Velez de Mendizabalek azaltzen duen moduan, “banuen haurtzaroko hainbat oroitzapen, ohitura, joku, jai eta kontu gogora ekarri eta idazteko kezkarik. Izan ere, aintzinako ohiturak, izenak etabar jasotzen ez baditugu, guztiz galduko dira eta horren kezka beti izan dut”.

1994ko abuztuan, eskuarte ezer konkreturik ez zuela hasi zen Jose Mari bere haurtzaroko hainbat gogoeta idazten. Helburua ez zen orain argia ikusiko duen liburua gauzatzea baina idazten hasi, jarraitu eta gero liburuxka bat idatzi zezakeela ikusi zuen. Hasierako gogoeta edo oroitzapen horiek idazten jarraitu eta bere haurtzaroko hainbat lagunekin egon ondoren, sei hilabetetan liburua idatzita zegoen: “Denbora gutxi behar izan dut idazteko, gutxi gorabehera 6 hilabete. Gehien kostatu zitzaidana jendearekin egotea izan zen, denbora faltagatik. Alde batetik, izozkitez elkartzen den emakume talde handi batekin egon nintzen, batez ere nesken jokuak eta euren kontuak eza-gutzeko, garai hartan neskak



eta mutilak aparte ibiltzen ginelako. Bestalde musika kontuak etabar gogora ekartzeko, Juanito Arzamendirekin egon nintzen. Cáritas eta Acción Católica inguruko giroa jasotzeko Pilar Arzamendirekin. Alfonso Gorroñogoitia, Jose Luis Osinaga... eta beste hainbat lagunekin ere egon nintzen. 60an Arrasatera etorri zen Clemente Lopez Cano viatoristarekin ere hitzegin nuen ordu-

ko hainbat kontu jasotzeko”.

Ehun folioko lana osatu du Velez de Mendizabalek, kapituloka, orduko gizartearen, famili-giroaren, denborapasen eta jaien inguruko ohiturak eta oroitzapenak jasoz. Liburuan 20-30 argazki ere sartu ditu, eta argazki oinak erdaraz agertuko dira, “orduko umeak euskaraz hitzegiten ez genekielako eta akaso, liburua irakurri nahi duten nire belaunaldiko askok,

euskaraz ez dutelako hitzegingo”. Velez de Mendizabalek Jose Mari Uranga historiagile arrasatearrari dedikatu dio “Nire haurtzaroko Arrasate”.

Ahozko historia

Jendea zirikatatu eta beste batzuk euren haurtzaroari edo garaia buruzko oroitzapenak jasotzen eta idazten hasi daitezten ere idatzi duela liburua esaten du Jose Marik. Izan ere, ahazko historia oso garrantzitsua eta jaso beharrekoa dela esaten du: “Arrasaten mende hasieran jaiotako jendea dago oraindik. Horiek hil aurretik euren testigantza jaso behar dugu eta edonork egin dezake hori. Kazetaritza ikasi duen jende askok lanik ez dagoela esaten du eta jende horrek ederto egin ditzake horrelako gauzak!”.

Jose Marik jende guztiari gomendatzen dio bere liburua: “Denok ezagutu behar dugu historia, gazte, heldu nahiz zaharrek. Badakit nire liburua nire belaunaldikoek disfrutatuko dutena gehien. Gazteei berriz erreferentzia moduan izango zaie baliagarri”.

Idazle emankor baten perfila

Jose Mari Velez de Mendizabal Aramaion jaio zen 1949ko irailaren 27an. Hiru urterekin Arrasatera etorri zen bizi izatera. Donostiako ESTE eskolan Enpresa eta Ekonomi Zientzietan lizentziatu zen. EUTGen izaten ziren klaseetan eman zituen lehen urratsak euskeraren arloan. Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria izan zen eta gaur egun Eusko Ikaskuntzako gerentea da. Bere lehen liburua 1979an idatzi zuen, Sebero Altuberen biografia hain zuzen. Geroztik, bigrafi, ipuin-bilduma eta espiotza nobelen artean beste hamaika idatzi ditu. Jose Marik kirol eta bestelako afiziorik ez duenez, idazketari eta irakurketari dedikatzen dio duen denbora libre apurra eta egunero ordu-bete ematen du idazten. Irakurri berriz, denetarik irakurtzen du eta gainera, 2 edo 3 liburu batera. Mesanotxea liburuz beteta edukitzen du beti eta etxean 3.000 liburu inguru izango dituela kalkulatu du.



B

igarren errepublikako argazkia aste honetako fotozaharrean. Garai hartan, beste eskola batzuen artean Arrasateko Udaletxeko lokal batean eskola laikoa egon zen.

Goiko lerrotik hasita eta ezkerretik eskumara, honako hauek dira argazkikoak: Goiko Lerroan, Isabel Ormaetxea, Dominga Uribesalgo,

Melchora Vitoria, Felisa Pedrejon, Margarita Larrea, Gregoria Elorza, Felisa Ibarra, Pilar Garai, Aurelia Ormaetxea, Petronila Gonzalez, eta Maria Sanz.

Erdiko lerroan, Maria Paz Anduaga, Matilde Azkarraga, Casilda Vitoria, Joaquina Arregi, Cresencia Larrea, Mertxe Vitoria,

Nicolasa Madinabeitia, Astaburuaga, Maria Uriarte, Isabel Ortueta, Heliadora Herrera, Juanita Zubia, eta Esperanza Balzategi.

Behoko lerroan, Maria Teresa Zarraoa, Asuncion Bedia, Jesusa Balanzategi, Presentacion Santamaria, Teresa Pagoaga, eta Maria Azula.



AKELARRE

Gozotegia

ORAIN AKELARREN
GOSARIAK GOIZEKO
7.30etatik AURRERA!

JAUNARTZE TARTA
Detaile batzuk
garrantzi handia
dutelako.



Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Merche Ambroy

"Merche" jantzidendakoa

- **Noiz zabaldu zenuten denda hau?** Orain dela 32 urte.
- **Nondik ekartzen duzue arropa?**artzelona, Madril, Galizia, Donostia, Katalunia eta beste hainbat tokitik.
- **Nondik etortzen dira bezeroak erostera?** Arrasaten bezero finkoak ditugu eta bestela inguruko herrietatik.
- **Zuek egiten duzue trajerik?** Ez, saldu bakarrik.
- **Zein kolore eramaten da orain?** Gorria, urdin iluna eta pastel koloreak.
- **Zuri zein kolore gustatzen zaizu gehien?** Elegante joateko urdin iluna eta bestela pastel koloreak.
- **Zapata lauak edo takoidunak?** Takoi gutxikoak.
- **Zenbatero joaten zara ileapaindegira?** Hamabostean behin.
- **San Juanetan hemen geratuko zara?** Ez, Zarautza joaten naiz urtero.
- **Egiten dituzu tartak etxean?** Bai, asko.
- **Zein ateratzen zaizu ondoen?** Gaztaduna eta natazkoa.
- **Musikari bat?** Julio Iglesias, izugarri gustatzen zait. Gasteizen egon nintzen entzuten.
- **Zure bizitzako egunik pozgarriena?** Ezkontzakoa eta nire semeak jaiio zirenekoak.
- **Arrasateko tokirik politena?** Santa Barbara.
- **Zatarrena?** Arrasate osoa polita iruditzen zait.
- **Egiten duzu punturik?** Bai.
- **Zer moduz jaxten dira arrasatearrak?** Azken urteetan asko hobetu dira.
- **Zu nora joaten zara arropa erostera?** Dendakoa jaxten dut.
- **Non erosiko zenuke etxebizitza bat?** Donostian.
- **Diruak zoriontasuna ematen du?** Ez, baina laguntzen du.
- **Ikusten dituzu kulebroiak?** Ez.
- **Zer ikusten duzu telebistan?** Pelikulak baina azkenaldian ez dute ezer dexenterik jartzen. "Rompecabezas" lehiaketa ikusten dut ere.



ELKARTASUNA

Aurtengo Brigada Internazionalistak

Komite Internazionalistak aurtengo udarako brigaden egitarauaren berri eman du. Brigadak arlo desberdinetan iharduteko Komite Internazionalistek bultzatzen duten proposamenak dira eta beste herrialde batzuetako errealitatearekin harremanetan jartzeko eta laguntza emateko aukera eskeintzen dute.

Aurtengo brigadak Mexiko, Guatemala, Nikaragua, El Salvador eta Kuban izango dira, guztiak uztaila, abuztua eta irailean. Prezioak 106.000 eta 152.000 pta. tar-tekoak dira.


Brigadetan parte hartu nahi duen guztiak ekainaren 7ra arte izango du izena emateko aukera. Era berean, brigadak burutuko diren herrialdeen egoerari buruz informatzeko, Klak hainbat hitzaldi antolatu du. Gaur Guatemalari buruzkoa izango da Monterronen 7etan. Horrez gain El Salvador, Guatemala, Mexiko eta beste hainbat herrialdeetako argazkiekin osatutako erakusketa dago ikusgai maiatzaren 18ra arte frantsizkotarren lokalean.



Oskar Vitoria

BITXI LANTEGIA
ZURE GUSTOKO BITXIAK!

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)
Tfnoa: 77 01 44 • ARRASATE



• ESAERA •

“Batzuk janaria dute, baina goserik ez, beste batzuk gose galanta baina jatekorik ez. Nik biak dauzkat. Eskerrak Jaungoikoari”

CRONWELL

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako herria.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10							
		11				12	
13	14		15				
16		17				18	19
20							
					21		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Zarraoa, margolari arrasatearra. 9. Idazki baten laburpen txikia. 10. Denbora luzez. 11. Nafarroako udalerrria. 13. Toledoko ibilgailuetan. 15. (Ald.) Arreba baten alaba. 16. Uretako hegazti moko zabela. 18. Eusko Trenbideak. 20. (Ald.) Ulertu aditzaren infinitiboa. 21. Bete.

Bertikalak 1. Kalean bizi dena. 2. Zerbait bururatu. 3. (Ald.) Indar handiz entzuten dena. 4. Ataskatu. 5. Edari lodi gozoa. 6. Ekialdeko Elizako erlijio-irudia. 7. Titanioa. 8. (Ald.) Paris zeharkatzen duen ibaia. 12. Agurra, diosala. 14. Lo egiteko balio duen altzaria. 17. (Ald.) Musika-eskako 6. nota. 19. Infusio mota.

• HOROSKOPOA •

Aries Txikitako beldurrak ez dituzu burutik kentzen.

Taurus Kontuz usoeikin! Gutxien uste duzunean... prasta!

Gemini Etxeko markesa zarela garbi dago. Baina kalean?

Cancer Aterkiarekin irtetzen zaren bakoitzean eguzkia irteten da.

Leo Lasaiago bizi beharko zinateke. Horrela ezin duzu jarraitu.

Virgo Oso pastel ederrak egiten dituzu, baina hartu neurria!

Libra Bakarti zabilta azkenaldian. Beharbada onerako izan daiteke.

Scorpio Lagunei bikotea aurkitzen lagundu diezu. Zuk ordea, zorte barik.

Sagittarius Mila traba eta eragozpen jartzen dizkiozu zeure buruari.

Capricorn Alferrik da zurekin haserretzea. Ez duzu kasurik egiten.

Aquarius Aurpegiko masailak gorritzen zaizkizunean... hori barregura!

Piscis Hiri handian bizitzeak ez dizu mesede egiten.

Mod. 962042




Mod. 865542

SIKOL
L E N T Z E R I A

Bainujantzitan aukera paregabea!

Olarte, 31 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 32

• TELEBISTAREN TXOKOA •



Ijitoen ohiturak eta eskubideak Astebete saioan

Maria Agirrek Agustin Unzurrunzaga, SOS Arrazakeriako kidea gonbidatu du gaurko *Astebete* saiora, gaueko 9.30etan. Musakolako

auzokideek Errumaniatik etorritako ijitoekin izan dituzten arazoak direla eta, ijitoen ohiturei eta eskubideei buruz hitzegingo du Agustinekin.

• KOMIKIA •



Zeguzar.

• PROGRAMAZIOA •



17 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
9.30etan
Astebete
Gaia: Ijitoen eskubideak eta ohiturak
Gonbidatua: Agustin Unzurrunzaga, SOS Arrazakeriako kidea

20 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Astebete (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

21 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

22 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Barrelekaixoka (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea

23 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Zinea (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Elkartean
Irantsube

24 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Txitxinpe
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

• SOLUZIOAK •

Berrikalaka: 1. Kaliter. 2. Otu. 3. (Ald.) Nezo. 4. Trabatu. 5. Xarabe. (Ald.) Ikon. 7. Ti. 8. (Ald.) Ans. 12. Oles. 14. Ohe. 17. (Ald.) Al. 19. Te. 20. (Ald.) Relu. 21. Ase.
Horizontalak: 1. Kontxita. 9. Alerakin. 10. Luzaro. 11. Obanos. 13. To. 15. (Ald.) Abol. 16. Ahate. 18. ET. 20. (Ald.) Rellu. 21. Ase.
Jergoiltzkoa: Betzama.

Etxebizitzak

- **San Andresen pisua eta garage itxia salgai.** Tfnoak: 77 13 09 edo (908) 57 54 78. Goizeko 9etatik ordu batera edo arratsaldeko 4etatik 8etara.
- **Santa Polan bungalow-a eta Torreviejan apartamentua alokatzen dira.** Hondartzatik gertu. Tfnoa: 79 32 54.
- **Garajea salgai Larragainen.** Tfnoa: 79 94 00.
- **Apartamentua alokagai Arrasaten.** 79 04 09.
- **Alokatzeko pisu baten bila nabil.** Mikel. 79 86 06
- **Biltegi bezala erabiltzeko** lokala alokatzen da. Tfnoa: 79 20 48.
- **Neska gazte** batek pisu txiki bat alokatuko luke. Tfnoa: 79 87 47. Virginia.
- **Ezcaray-en (Errioxa) pisua alokagai** uztaila eta irailen. Kirol instalakuntzarekin. Tfnoa: 79 31 56.
- **Cordoba y Oro kalean etxebizitza salgai.** Tfnoa: 79 69 00.
- **Taberna bat alokatzen da Arrasaten.** Tfnoa: 77 14 93.
- **San Andresen garajea,** 310 m² lokal bat eta 60 m²ko bulego ekipatua dutxa eta komunarekin salgai.
- **10 milioi pezeta inguruko etxebizitza erosi-ko nuke.** Tfnoa: 77 60 77.
- **Bi ohedun logela alokatzen da** Elkano kalean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Torreviejan apartamentua alokatzen da.** Bi logela, pizina eta ikuzgailua eta hondartzatik oso gertu. Tfnoa: 79 53 18.
- **Jakan apartamentua alokatzen da udan.** Tfnoa: 74 15 22.
- **Etxebizitza salgai Erdiko kalean.** Tfnoa: 79 96 14.

Lana

- **Injinerutzako 1. mailako algebrako** klase partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 76 16 11. Eguerdietan dei egin.
- **Esperientziadun neska gaztea** gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka eta goizez. Tfnoa: 79 31 44.
- **Neska bat behar da taberna** baten lan egiteko. Tfnoa: 79 00 34.
- **Mutil bat behar dugu** kirolendak baten lan egiteko. Bidali datuak 259 postakutxatilara.
- **Neska gaztea prest** arratsaldez etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Mari-sol.
- **Domeketan lan egiteko prest** egongo den neska behar da. Derrigorrezkoa kotxea izatea. Tfnoa: 79 47 85.
- **OHoko klase partikularrak** emateko gertu. Tfnoa: 79 98 30.
- **Esperientziadun neska umeak** zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 77 94. M^a Eugenia.
- **Neska behar da garbiketarako** egiteko. Tfnoa: 77 10 25.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.
- **Emakumeak behar dira** kosmetikan lan egiteko. Tfnoa: 79 09 56. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Kanpingean joateko bost** lagunendako karabana egoera onean salgai. Tfnoa: 79 18 60.

Salerosketak

- **Seat Ronda G 5 CL salgai.** Bost atekoa. 12 urte ditu (SS-S). 83.000 km. Besterik ez. Oso oso ondo dago. Interesatuek: 79 09 52.
- **Nissan Vanette isotermikoa salgai.** Diesela. Egoera onean. Tfnoa: 21 18 55.
- **Ezkontzarako soinekoa salgai.** Gaueko 8etatik 10etara 76 06 53 tfnoan.
- **ZZR-600 motorra salgai.** Extra asko: parrila, alarma, depositoa, babestekoa, kaskoa... Gauza asko berri berriak ditu, beltza eta larrosa kolorekoa da. Gertu gertu erabiltzeko. Tfnoa: 79 74 61. Juan Carlos.
- **Moto-bizikleta salgai.** Egoera eta prezio ona. Tfnoa: 79 33 10. Jon.
- **Bigarren eskuko trikitixa erosi-ko nuke.** Eli. Tfnoa: 72 30 25.
- **Baja amanda daukan R-18 saltzen da** piezak aprobetxatzeko. Tfnoa: 79 50 96.

Denetarik

- **Urrezko pultsera bat aurkitu** dut San Andresen Amaia izenarekin eta data batekin. Tfnoa: 79 86 06.
- **Eresi inguruan urrezko lepokoa galdu zitzaidan.** Tfnoa: 79 54 63.
- **Funda urdinean neraman Vogar** markako betaurreko graduatuak galdu ditut. Iturripe edo Musakola aldean. Tfnoa: 79 94 91. Jon.
- **Gurutze txiki bat duen urrezko kataia** galdu ditut Portalo inguruan. Aurkitu baduzu dei egin 79 73 39 tfnora.
- **CIMetik Arrasate Kirolakera** bidean, puntuz egindako bi koadro galdu zitzaizkidan. Aurkitu badituzu dei egin 79 88 30 tfnora.
- **Joan den astean urrezko pultsera** bat galdu nuen erdigunean edo Eroski inguruan. Tfnoa: 79 84 85. Eskertuko da.

Aste Gazte

Lana

• Barakaldoko Kiroldegiko Udal Erakundeak, Zuzendari Gerentea lanpostua kaleratu du. Ekonomi eta Enpresa Zientzietako edo Zuzenbide ikasketak izatea eskatzen da. Epea: maiatzak 30.

• Alonsotegiko Udalak, administrari laguntzaile lanpostua bat kaleratu du. LHI ikasketak izatea eskatzen da. Epea: EAO.an argitaratua izan ere itxoi-ten.

Bekak

• “Zumalakarregi” museo-

ak, “Euskal Herriari buruzko ikerketa historikoa” ikerlanak sustatzeko laguntza ekonomikoa eskaintzen du. Epea: ekainak 7.

• Emakumearen Euskal Erakundeak, EMAKUNDE, emakumezkoak euskal autonomi elkarteko esparru guztietan parte hartzera bultzatzen eta elkar-tegintza sustatzeko, dirulaguntzak deitu du. Epea: maiatzak 2.

• ENDESA-96 beka deitu da. Goi-mailako ingeneritza edo Enpresarialesetan lizentziatua izatea eskatzen da. Bekaren iraupena 11 hilabetekoa izango da. Epea: maiatzak 27.

Hizkuntz egonaldiak

• Ingelesa Segurako aterpean. 18-19 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Kuota: 45.000 pta. Izenematea: ekainaren 3tik 21era.

Auzolandegiak


• Atzerriko auzolandegi batera joateko interesa duzuenoi: SCI elkarteak aurtengo eskaintza jada atera du.

Lehiaketak

• “Ermua Hiriko” II Literatur lehiaketa. Olerkia zein narratiba. Euskaraz nahiz gaztelera. Gaia librea. Epea: maiatzak 31

“Gazteria mugagabeko zeru ertz batean aurikuntza da: bizitza”

J. ENRIQUE RODO.
IDAZLE ETA HUMANISTA
URUGUAIARRA



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



Mar Gomezen konpainiak aurkezten du:

La Nostalgia del pepino

- Amaia Antzokian
- Maiatzak 25 (Larunbata)
- Gaueko 22.00etan
- SARRERAK: 800 pta.
(Gazte-Txartelarekin 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ROMEO Y JULIETA

W. Shakespeare

Bertsioaren
zuzenketa:
ELENA PIMIENTA

- Amaia Antzokian
- Maiatzak 31 (Ostirala)
- Gaueko 22.30etan
- SARRERAK: 1.000 pta.
(Gazte-Txartelarekin 800 pta.)

UR

ANTZERKIA

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatu, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhoea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atzetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena Auza, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86
OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.